

Funtzio Publikoko langile
har ezazue hitza!

**Herritarren beharrei
erantzungo dien
Herri elkargo baten alde
HEMEN ERABAKI!**

>zerbitzu publikoa



• *Euskal Herria aski heldua da bere herritarren kudeatzeko eta ez aski bere langileen kudeatzeko?*

• *Langile Kudeaketa Gune bat Euskal Herri mailan eraikiz eta Batzorde Administratibo Parekidea Elkargo berrian sortuz!*

- 10 herri elkargo batu dira euzkara animalearen sortzeko.
- 1.200 langileko euzkara sortu da.

LABek hasieratik HELEP bakarraren sorkuntza sustengatu du. Euskal Elkargoak Euskal Herriari lehen ezagutza administratibo eta instituzionala ematen dio: pausu handi bat da!

Orain, eskumen handiak dituen elkargo bakar batek du gure lurraldea kudeatzen. Baina langileen lanbideak departamendu mailan, Pauen, den langile kudeaketa guneak ditu oraindik kudeatzen.

Euskal Herria aski heldua da bere herritarren kudeatzeko eta ez aski bere langileen kudeatzeko?

LABek aspaldidanik Euskal lurraldeak eskumen hori bere gain har dezan aldarrikatzen du.

Paraleloki, LAB sindikatuak eramandako laneri esker Garapen Kontseiluan, Pribatuko beste eragileekin batera (sindikatu eta enplegatzaile), lurraldeko sozial elkarriketa gune bat sortzeko bide onean da 2017an: Tokiko Batzorde Parekidea.

Arlo publikoan ere, orain da garaia tokiko funzio publikoaren eta bere langileen geroa Euskal Herri mailan marrazteko. Nola? Langile Kudeaketa Gune bat Euskal Herri mailan eraikiz eta Batzorde Administratibo Parekidea Elkargo berrian sortuz!

Sindikalismoa birpentsatu dezagun egiazko alternatiba batentzat

• **LAB sindikatuak, interferentzia dogmatikorik gabeko sustengu logistiko eta juridikoa ekarriko du.**

• **LABen ordezkariak lurraldearen nahikunde eta berezitasunak kondutan hartuko dituzte**

Laister antolatuak izanen diren hauteskunde profesionaletan, LABeko hautagaiak oinarritzko prinzipio eta baloreak errespetatzen engaiatzen dira. Tokiko errealitatearen arabera beren erabakietan autonomoak izanen dira.

LAB sindikatuak, interferentzia dogmatikorik gabeko sustengu logistiko eta juridikoa ekarriko du.

LABen ordezkariak lurraldearen nahikunde eta berezitasunak kondutan hartuko dituzte.

LAB tokiko eta bokazio profesionala duen sindikatua da; LABek ez du agindu bertikalarik segitzen. LAB ez da gainetik heldu diren edo tokiko errealitateaz urrun diren erabaki guneen menpe.

Elkargoak Euskal Herriari buruz hartzen dituen erabakiak Euskal Herri berean sortzen dira. Logika berean, ekintza sindikala langile eta elkargoko langileen ordezkarietatik jinen da eta elkargo honen eremu eta eskumenetan mugatuko da.

Zentzu honetan da LAB beste sindikatueri oposatzen: EHan diren beste sindikatek Parise edo Bordaleko zuzendaritzaren menpe direlarik. Sindikata horiek ez dute egiazko erabakitzeko podererik eta ez dira tokiko testu-guruari egokitzen.

Aldaketa soziala eragiten duen sindikatua da

LAB aldaketa sozial baten alde posizionatzen den sindikatua da, langileok, gure lanetik kanpo aktore baikira ere: migratzaileen harrera ekintzetan, TAFTA ren aurkako hitzarmen kolektiboan, Eusko tokiko monetaren alde...

Lan baldintzak hobetuz, prekaritatea ttipitzera doa

LAB intersindikalaren parte da, gidaritza batzordeko bilkurretan parte hartu du eta langileak baldintza hoberenetan fusionatu dezaten segurtatzen dugu. Baldintzak harmonizatu? Bai, baina goruntz!

Eraikuntza faseak bederen 2 urte iraunen ditu: Uda huntan hautatuak izanen diren langileen ordezkariak BATZORDE TEKNIKOETAN hautetsiekin fase hori erainkitzen segituko dute. Plantan emanen diren zerbitzuen kalitatea segurtatu beharko dute.

LAB sindikatuak zerbitzu publikoen kalitatea segurtatu nahi du; kalifikatuak eta ezagutuak diren langileen eskutik.

Euskal elkargo berrian eztabaidak piztu beharko dira aterabideak aurkitzeko helburuarekin: prekaritatearen aurka borrokatu, lan bizi kalitatea hobetu, gaizki izaitea ttipitu.

Huteskunde horietan aurkeztea funtsezkoa da!

Desafio asko ditugu: Lan baldintzak, osasuna, seguritatea, elkarrizketa soziala, nola hobetu zerbitzu publikoen kalitatea?

• **LABek zerbitzu publikoen kalitatea segurtatu nahi du; kalifikatuak eta ezagutuak diren langileen eskutik**

• **LAB aldaketa sozial baten alde posizionatzen da. Langileok, gure lanetik kanpo aktore baikira ere**